

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure kasuan, zerbitzuaren banaketa zuzena izango da oinarria. Horrek esan nahi du, guk sortutako eta ekoiztutako zerbitzuak zuzen eta berehala iritsiko direla kontsumitzaileari, inolako bitartekaririk gabe. Banaketa zuzena aukeratzeak hainbat abantaila ekarriko ditu: batetik, bezeroekin harreman zuzena eta hurbilagoa ahalbidetuko du, eta horrek konfiantza eta leialtasuna sustatuko ditu. Bestetik, gure zerbitzuaren kalitatea eta bezeroarentzako arreta hobetu ahal izango dira, erantzun azkarragoak eta pertsonalizatuagoak eskainiz. Horrez gain, gure zerbitzuaren nabaritasuna eta presentzia handituko dira, izan ere, kontsumitzaileak zuzenean gure markarekin lotuko dira, eta horrek gure enpresaren irudia eta ospea indartuko ditu.

Zerbitzuaren banaketa eta komunikazio estrategia bideratzeko, hainbat kanal erabiliko ditugu, gure bezeroekin modu eraginkorrean komunikatzeko eta zerbitzuaren berri emateko. Hasteko, sare sozialak izango dira gure komunikazio kanal nagusia. Gure zerbitzuaren erabilgarritasuna gehienbat gazteek erabiliko dute, eta horiek sare sozialetan ematen dute denbora asko, eguneroko bizitzan funtsezko tresna bihurtu direlarik. Gaur egungo gizartean, sare sozialek duten eragina oso handia da, eta bertan jasotako informazioak erabiltzaileen jarreretan eta erabakietan eragin zuzena du. Hori dela eta, sare sozialak gure komunikazio estrategiaren ardatz bihurtuko dira, sare hauetan modu iraunkorrean eta etengabean mezuak zabaltzeko aukera emango baitigu, gure zerbitzuaren erabilera eta ezagutza bultzatuz.

Era berean, albisteak eta iragarkiak ere erabiliko ditugu gure zerbitzuaren komunikazio-kanalak osatzeko. Albisteetan eta iragarkietan gure zerbitzuaren presentzia mediatikoa handitzea, komunikabideetan (telebista, irrati, prentsa idatzia, etab.) agertzea, publiko zabala lortzeko aukera paregabea emango digu. Horrez gain, iragarki digitalak ere erabiliko ditugu interneten (web orrietan, sare sozialetan, bilatzaileen bidez), horrela, gure zerbitzua online espazioetan zabalduz eta ingurune digitalean gure presentzia areagotuz.

Iragarkien bidez, publiko zabalera iritsiko gara, eta erabiliko ditugun komunikazio-kanalen bidez, gizartean eraginkortasun handia lortuko dugu. Telebistan, irratian eta prentsa idatzian iragarkiak jartzeak gure zerbitzua gero eta gehiago ezagutaraziko du, eta horrek ez du bakarrik publiko orokorrari eragiten, baizik eta erabiltzaileen inguruko familia eta lagun gazteei ere helaraziko zaie. Horrela, gizarte-sareetan eta ingurune tradizionalen agerpena izanez, gure zerbitzuaren zabalkundea eta erabilera hasten eta mantentzen lagunduko dugu.

Sare sozialak, albisteak eta iragarkiak erabiltzeak, gainera, gure marka eta zerbitzua etengabe sustatu eta sendotu ahalbidetuko du, eta publikoarekin harreman iraunkorrak eta ertza izango ditugu. Azkenik, komunikazio-kanal hauek, bakoitza bere modu eta formatuan, gure zerbitzuaren bilakaera eta hobekuntza bermatzeko tresna ezinbestekoak

izango dira, bai markaren presentzia lortzeko, bai kontsumitzailearen fidelizazioa eta gogoeta soziala handitzeko.